# goazenmendira.com

*AZKENEAN bildu gara Juan Zelaiaren larogei urteak direla eta omenalditxo partikularra ospatzera: bera izan zen orain dela hogei urte Everestera igoteko ideia ausarti hura garraz onartu zuena eta proiektu hau arrakastatsua izan arte buru-belarri saiatu zena. Tximistekoak ia guztiok gaude ("Erratu egin naiz, geriatrikoa da hau!" dio Juan Carlosek, heltzen denean, beti bezala berandu), hiru aulki daudelarik, betirako hutsik jadanik, Paco, Ricardo eta Juanitorentzat.*

*Bazkariaren erdian telefonoaren hotsa entzuten da. Everesteko Oinarriko Kanpamendu Aurreratutik deitzen dute, 6400 metrotara, espedizionarietarikoren baten ikusmenari buruzko premiatasunezko kontsulta bat egiteko. Ematen du ez dela hasieran pentsa zitekeen bezain larria eta gailurrera ailegatzeko hurrengo ahaleginean ere parte hartu ahal izango duela, montzoia etorri baino lehen.*

*Guztiok mahaira bueltatzean solasaldiaren ezinbesteko gaiari heltzen diogu berriro ere: orain dela 26 urte Tximist espedizioaren eta gaurkoen artean zenbaterainoko aldea dagoen gauzak nola egiten diren aztertzerakoan, telekomunikabideetan izandako aurrerabideak direla eta ez direla ("Niri gauza hauek ez zaizkit gustatzen, baina argi dago ezin daitekeela joan historiaren aurka... eta neuk ere eramaten dut etxean erregalatu didaten mobila mendira bakarrik joaten naizen bakoitzean").*

*Gogoratu egiten dugu lehen Khumbuko glaziarreko Oinarriko Kanpamendutik berriak bidaltzeko, mail-runneren lanak egiten zituen sherpak hiru egun behar izaten zituela Luklara jaisteko posta Kathmandura eramango zuen hegazkintxoa itxarotera edo nola konektatzen genuen zortzi orduro gure aparatua Indiako irrati-emisore ofizialarekin, Queen Expeditionarentzako aurreikuspen metereologikoen partea entzuteko.*

*Horrek guztiorrek ez du inolako zerikusirik gaurko kondizioekin: norberaren etxeko ordenagailutik egunero Oiarzabalekin "txateatzeko" posibilitatea edo gailurrerako ahaleginaren emankizun zuzena ikustekoa telebistaren bitartez. Baina, batzuri arraru egiten bazaie ere, edo "pasada" bat iruditzen bazaie ere, mendizaletasunaren izaera betidanikoa da ("mendia poesia da edo, bestela, zer da?" lelo hori.....).*

*Gauzak beren lekuan jartzeko, espedizionarien Kanpamendu Aurreraturako jatsiera jarraitzen dugun bitartean jakin dugu beraiekin jaisten zen poloniar bat irrist egin eta amildegitik erori dela. Everesteko tibetar isurialdean zehar dabiltzan beste espedizio askori buruz, zeintzuren artean ere makina bat mendizale euskaldun dagoen, gutxiago dakigu eta beraietariko batzuren gainean ez da berririk errezibitzen.*

*Eta hauxe da Everesteko zirkua, baina bitartean igonaldi garrantzitsuak gertatzen ari dira beste mendi batzutan, askoz ere publizitate eskasagoaz. Bapatean heltzen zaizu, adibidez, Adolfo Medinabeitia eta Juan Miranda egun batzu barru Baltoroko glaziarrera joango direla Amingo horma bertikaletatik aste pare baterako eskegitera, edo enteratzen zara harategian auzokoaren semea, inolako zaratarik gabe, munduari buelta bakarrik egiten ari dela, edo bizikletan, edo Institutuko zuzendariak berak igo zuela lagun batzurekin orain dela urte pare bat Gangeseko iturrietaraino.*

# vamosalmonte.com

ESTAMOS por fin celebrando un pequeño homenaje particular a Juan Celaya, en sus ochenta años por haber acogido con entusiasmo aquella idea atrevida y haberse empeñado a fondo hasta conseguir que terminase con éxito la primera subida al Everest, ahora hace veinte años. Estamos prácticamente todos los de la Tximist ("Me he equivocado, esto es el geriátrico", como nos saluda al llegar, tarde, Juan Carlos), con tres sillas, vacías ya para siempre, para los entrañables Paco, Ricardo y Juanito.

En mitad de la comida suena el teléfono. Llaman desde el Campo Base Avanzado del Everest, a 6400 metros, para hacer una consulta urgente ante un problema en la vista de uno de los expedicionarios. Parece que no es tan grave como se pensaba al principio y que incluso podrá participar en otro intento de cumbre, antes de que llegue el monzón.

Al volver todos a la mesa reiniciamos uno de los temas inevitables de la conversación: el cambio tan significativo entre las formas de hacer en la expedición Tximist, hace 26 años, y las de ahora, debido sobre todo a los avances en las telecomunicaciones ("A mí no me gustan estas cosas, pero está claro que no se puede ir en contra de la historia ... y yo también llevo el móvil que me han regalado en casa para cuando voy solo al monte").

Recordamos cómo entonces para mandar las noticias desde el Campo Base del glaciar de Khumbu, el sherpa que hacía de mail-runner empezaba tardando tres días en bajar hasta Lukla a esperar a la avioneta que llevaría el correo a Kathmandu o cómo cada ocho horas teníamos que conectar nuestro aparato con la emisora oficial de radio India, para oir el parte de las previsiones meteorológicas para la Queen Expedition.

Esto no tiene nada que ver con las condiciones actuales: la posibilidad de "chatear" desde el ordenador de casa todos los días con Oiarzabal o la retrasmisión por TV en directo del intento de cumbre. Pero aunque a muchos les choque, y les parezca "una pasada", la esencia del montañismo sigue siendo la misma de siempre (eso de que "la montaña es poesía y si no, entonces ¿qué es?").

Para poner las cosas en su punto, mientras seguimos la bajada de los expedicionarios a la Base Avanzada nos enteramos de que uno de los polacos que bajaba con ellos ha patinado y se acaba de despeñar. De las otras muchas expediciones que se mueven por la vertiente tibetana del Everest, entre las que también hay bastantes montañeros vascos, sabemos menos y de alguna de ellas no se recibe ninguna noticia.

Y esto es el circo del Everest, pero a la vez se están realizando ascensiones importantes en otras montañas, con mucha menos publicidad. De repente te llega, por ejemplo, la noticia de que Adolfo Madinabeitia y Juan Miranda irán dentro de unos días al glaciar de Baltoro para colgarse durante un par de semanas en las paredes verticales del Amin, o te enteras en la carnicería que el hijo de la vecina, sin ningún ruido, está dando la vuelta al mundo en solitario, en bicicleta, o que el propio director del Instituto subió en bici con unos amigos hace un par de años hasta las fuentes del Ganges.

Txomin Uriarte